

LEIHOTIK

N° 13

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEAREN BERRIPAPERA
BULLETIN D'INFORMATION BIMESTRIEL DE L'INSTITUT CULTUREL BASQUE
2000ko OTSAILA / FÉVRIER 2000

AITZINSOLASA

HAMAR URTE !

Ez idurika, Euskal kultur erakundeak hamar urte betetzen ditu aurtan. Hastapenetik zuzendaritzan izanez, nola utz urteburua aipatu gabe ?

Lehenik, eskerrak merezi dituzte Pizkundea elkarte ohiaren buruzagiek. Garai hartan, ikaragarriko lanak erabaki baitzituzten elkarleen elgarretartzeko eta egitura berri profesional baten abiarazteko.

Borondate politiko bat ere bazegoen. Eta beharrik Herrien arteko sindikata sortu zela, sahetsean zauzkala kultur ministeritza, Kontseilu Orokorra eta Akitaniako kontseilua. Geroztik, urtez urte, beren konfiantza eta sustengua ekartzen dizkigute.

Haste hartan, kasik dena asmatu behar genuen. Frantzia guzian ez baita egitura bakar bat gurea bezalakorik ! Elkartekideei hurbil egonez, hautetsi eta erakunde publikoetako ordezkariak euskal kulturaren egoera hobeki sendiarazi behar genien, batzutan korapilo zonbait deseginez, hautsi-mautsi bat goiti-beheiti...

Hamar urteren buruan, erran dezakegu gauza eder anitz obraturik izan dela, elkarteei esker bereziki.

Hasi saila ahal bezain ongi segituko dugu, gogoan ukanez zernahi gelditzen dela egiteko, eta hori, alor orotan.

Euskal kulturak, irautekotz eta hobetzekotz, beste kultura guziek bezala funtsean, errotik lagundua izan behar du.

Datorren hamarkada aberatsa izan dadila beraz, Euskal kultur erakundearekin batera, tokiko egiturak ere behar bezala eta epe luzerako finkatuz.

ÉDITO

1990 - 2000...

L'Institut culturel basque a dix ans d'existence. Anniversaire à marquer d'une pierre blanche ! Dès sa création, il a bénéficié de la confiance de plus de 50 associations qui, au quotidien, travaillent passionnément pour le maintien et le développement de la culture basque.

Parallèlement, il faut rappeler la mise en place, la même année, du Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque, réunissant dès le départ 136 communes (146 actuellement). Son apport financier mais aussi sa caution morale indéfectible ont largement contribué à la réussite de l'Institut culturel basque, subventionné également par l'Etat, le Conseil général des Pyrénées-Atlantiques et le Conseil régional d'Aquitaine.

Aucun modèle de même type que notre organisme n'existant en France, il a fallu pratiquement tout inventer ! A force de persuasions et de réalisations, une démarche originale basée sur le partenariat et le dialogue permanent a fait ses preuves.

Ce bilan positif ne doit pourtant pas nous faire oublier que tout est toujours très fragile et qu'un immense travail reste à accomplir.

Gageons que la prochaine décennie soit encore plus fructueuse en faveur de la langue et de la culture basques que nous devons servir avec enthousiasme, avec bien sûr, la pérennisation tant des actions de l'Institut que celles des structures associatives.

Daniël LANDART
Directeur-adjoint de l'I.C.B.

SAMEDI 8 AVRIL 2000 à 10 h
à HENDAYE, salle des Congrès
ASSEMBLÉE GÉNÉRALE
de l'Institut Culturel Basque



Joan den abenduaren 18an, Pantxoa ETCHEGOIN-ek, Euskal kultur erakundearen zuzendariak, Administrazio kontseiluko kideen aitzinean aurtengo kultura egitasmo orokorra aurkeztu du. Hona hemen pondu garrantzitsuenak.

"Nolako euskal kultura XXIgarren mendean ?" gogoetaldiaren iritzi eta oharrak harrointzat hartzen dituela, aurtengo egitasmoak lau norabide nagusi dauka :

1. EUSKARAREN ALDE BERMATZEA

Hizkuntza kontseilua beti helburutzat atxiki arren, lehen urratsaren finkatzea beharrezkoa iruditzen zaigu, zinez premiatsuak baitira euskararen aldeko ekintzak, nola erakaskuntzan, hala komunikabide eta bizi publikoan. Horregatik, galdegiten dugu, aurtan berean, Euskal kultur erakundearen "Hizkuntza eta ondarea" zerbitzua zabaldua izan dadin, euskararen alorrarentzat postu berezi bat idekiz.

2. KULTURAREN EGITURATZEAREN ANTOLATZEA

Gure lehen eginbeharra, euskara eta euskal kulturaren alde bermatzen direnen sosleiatzea da, egitasmoak ahal bezain baldintza onetan eraman ditzaten. Xede horrekin, Euskal kultur erakundeak formakuntza, haur eta gazteen hezkuntza artistikoa, sorkuntza eta ahal bezain hedapen zabalak, oroz gainetik lagunduko ditu.

Halaber, tokian tokiko egitura profesionalekin (Garazikus, Eihartzeta, Haize-Berri, Uhaitza, euskal irratiak, ...) joanago eta gehiago lan egin behar dugu, haien beharra baitezpadakoa baita, izan dadin artista, elkarte edo hurbileko jendearentzat, nolaz ez kultura hedapen sare desberdinekin harreman berrien sortzeko.

3. PARTAIDETZAREN AZKARTZEA

Euskal kultura garatzekotan elkarlanak egunero azkarragoa izan behar du. Gure aldetik, entseatuko gara kultura eta ekonomiako partaide berrien edireiten, artisten elgarrekilako harremanen barnatzen, halaber elkarleen eta erakundeen arteko loturen errexten.

4. EUSKAL KULTURAREN HIRIAN FINKATZEA

Ekintzak obratuak izanen dira hiri auzoetan, euskal kulturaren alde animazio berezien akulatzeak, lehenetsuna belaunaldi berriei ematen dugula. Proiektuak bateratuz Euskal Herri osorako, gure kulturaren izaitea ez da azkartuko baizik, bai Euskal Herrira, bai kanpora. Xede honekin dabil Euskal kultur erakundeak, aurtengo programa abian ezartzerakoan.

KANTUKETAN : EKIMEN AMANKOMUNA

Epe luzerako ekintza honek leku berezia dauka aurtengo egitasmoan. Alabainan, jaz ekintza zehatzak gorpuzturik, hauek ondoko hilabeteetan indartuko dira.

Le 18 décembre dernier, Pantxoa ETCHEGOIN, directeur de l'Institut culturel basque, a présenté le projet culturel de l'an 2000 devant les membres du Conseil d'administration. En voici les grandes lignes.

S'appuyant sur les remarques et suggestions formulées lors du colloque "Quelle culture basque pour le XXI^{ème} siècle ?", le programme pourrait se résumer en quatre points :

1. AGIR SUR LA LANGUE BASQUE

Même si le Conseil de la langue basque reste toujours d'actualité, il nous paraît nécessaire de fixer une première étape, à savoir l'élargissement dès l'an 2000 du pôle "langue et patrimoine" de l'Institut culturel basque, en y créant un poste spécifique pour l'euskara.

2. UN TRAVAIL DE FOND SUR LA STRUCTURATION CULTURELLE

L'Institut culturel basque se doit de soutenir en parallèle des initiatives doubles qui permettent :

d'une part, aux artistes amateurs (largement majoritaires au Pays basque nord) de pouvoir développer une culture basque de qualité,

et d'autre part, aux indispensables structures professionnelles de proximité telles que Garazikus, Haize-Berri, Eihartzeta, Uhaitza, ou encore les radios associatives, d'accompagner les actions culturelles.

Dans ce chapitre, prédominent la formation, l'éducation artistique des enfants, la création, et enfin la diffusion au plus grand nombre.

3. LE RENFORCEMENT DES PARTENARIATS

La démarche collective doit primer sur le projet individuel. Aussi, l'Institut culturel basque a un rôle important à jouer dans la recherche de nouveaux réseaux culturels et économiques, dans une plus grande connaissance mutuelle entre les artistes, dans la médiation entre les associations et les institutions, etc.

4. UN EFFORT SUR L'ESPACE URBAIN

Une priorité sera donnée au développement de la culture basque dans l'espace urbain ou péri-urbain, avec une priorité sur les jeunes générations.

En fédérant les projets à l'échelle du Pays Basque, l'identité culturelle du territoire s'en retrouvera affermie, tant localement qu'à l'extérieur.

Tel est l'objectif que souhaite atteindre l'Institut culturel basque en mettant en œuvre ce programme.

KANTUKETAN : UN PROGRAMME FÉDÉRATEUR-PHARE

Ce programme pluriannuel prend une place prépondérante dans notre projet, car si d'importantes actions concrètes ont été réalisées en 1999, celles-ci s'intensifieront en l'an 2000.



REGARD

Ils sont jeunes. Passionnés de musique. Là où ils sont, avec peu de moyens, en groupe ou en solo, ils jouent, créent, s'essaient à la musique qu'ils aiment...

et font le choix de la langue basque

pour les textes de leurs chansons.

Pour plusieurs années, la radio

Gure Irratia est à leur écoute. Pour

ceux, elle a lancé en 1999 la pre-

mière édition de GAZTE LEIHO,

un tremplin de la jeune

création basque.



Agus HERNAN, directeur de Gure Irratia

GAZTE LEIHO!



FENÊTRE OUVERTE SUR LA JEUNE CRÉATION BASQUE

"Les jeunes ont des choses importantes à dire. Il faudrait les écouter davantage." Thierry Biscarry est un jeune créateur. Avec son groupe Txitxab, il est l'un des lauréats du tremplin Gazte Leiho. Une récompense qui marque le début d'un parcours musical. "Nous avons commencé avec trois chansons. A présent, il nous faut travailler notre répertoire, créer de nouvelles chansons, l'objectif étant de présenter nos créations sur scène. Si ce que nous faisons plaît au public, il sera temps de penser à réaliser un premier disque."

Toutes les musiques

Depuis 1997, la radio GURE IRRATIA a ouvert ses ondes à ceux qui, comme Thierry, font de la musique en Pays Basque. Chaque soir, de 20 h à 22 h, s'installe sur l'antenne une radio dans la radio, faite par des jeunes pour les jeunes. "Ce programme intitulé "Gazte irratia" occupe actuellement vingt cinq personnes. Et parmi elles, des musiciens", explique Agus HERNAN, directeur de Gure Irratia. "C'est de cette expérience très fructueuse qu'est née l'idée d'un tremplin réservé à la jeune création basque." Partant du constat qu'il existe en Pays Basque de véritables trésors dans le domaine de la création musicale, le projet prend la forme d'un concours ouvert à toutes les musiques. "Il faut souligner que nous sommes actuellement les seuls à proposer un concours de création ouvert à tous les genres de musique." précise Agus Hernan. "La plupart des tremplins concernent le rock, c'est une réalité. Avec notre initiative, nous prouvons qu'il y a des créateurs dans tous les styles." Le concours se distingue également en s'ouvrant aux artistes de l'ensemble du Pays Basque, et en faisant de la qualité de la langue un critère incontournable.

Créer : un engagement

En permettant à la jeune création basque de s'exprimer, Gazte Leiho met également en évidence les difficultés auxquelles se heurtent les jeunes créateurs. Si le Pays Basque sud compte un certain nombre de circuits et une organisation de la production, en Pays Basque nord les salles font cruellement défaut, la création en langue basque n'est guère encouragée, et il n'existe pas de réseau de diffusion organisé. Dans ces conditions, le choix de créer devient un véritable engagement qui exige une motivation extrême. Gazte Leiho devient alors une fenêtre offerte aux jeunes artistes pour faire le saut de l'autre côté du miroir, dans le monde du spectacle. C'est l'opportunité de se produire sur scène, de rencontrer le public, de se confronter aux techniques du métier. Ainsi le gagnant du concours - en l'occurrence le groupe GEROH - enregistrera un premier CD, entamera une tournée dans l'ensemble du Pays Basque, sa promotion médiatique étant assurée par Gure Irratia. Quant aux neuf autres groupes sélectionnés, ils enregistreront sur un même disque certaines de leurs chansons, après s'être produits sur scène, le 29 janvier à St-Pée-sur-Nivelle.

Un partenariat original

L'opération recueille rapidement l'adhésion de partenaires qui se retrouvent pour la première fois autour d'un projet commun : l'Institut Culturel Basque, la SACEM (Société des Auteurs, Compositeurs et Editeurs de Musique) et le Bureau d'Information Jeunesse de la ville de Bayonne. Pour l'Institut Culturel Basque, cette opération s'inscrit tout naturellement dans le programme pluriannuel sur le chant basque, KANTUKETAN, lancé en 1999. "Il s'agit pour nous de soutenir toutes les initiatives favorisant la transmission et la créativité", explique Pantxoa Etchegoin, directeur de l'I.C.B.. "Plus concrètement, l'Institut prendra contact avec des organisateurs de concerts afin de permettre aux gagnants du tremplin de se produire sur scène, à travers tout le Pays Basque." Pour la SACEM et son délégué régional Lucien Quesnel, ce partenariat est une façon d'aller à la rencontre de la vie culturelle basque : "Pour connaître les acteurs de la vie culturelle, surtout dans une région comme le Pays Basque, il faut échanger avec eux, il faut essayer de trouver ensemble les moyens qui permettent de favoriser l'émergence de la jeune création. De ce point de vue, l'initiative de Gure Irratia est intéressante et novatrice." Le B.I.J. de la ville de Bayonne apporte sa contribution en relayant, auprès des jeunes, toutes les informations concernant le concours. Reste à convaincre une maison de disques de compléter ce partenariat original : ce sera Agorila, qui s'engage à produire le disque du vainqueur du tremplin.

Gazte Leiho 2000

Bien décidés à ne pas s'arrêter en si bonne voie, les organisateurs et partenaires de l'opération annoncent d'ores et déjà une deuxième édition du tremplin, qui démarrera en septembre prochain. "Je suis sûr que nous pouvons avoir davantage de candidatures", avoue Agus Hernan, "et j'espère que nous aurons la chance de découvrir des solistes, des auteurs, des improvisateurs, du chant choral. Nous savons qu'il existe des trésors dans ces domaines aussi." En tant que lauréat de la première édition, Thierry Biscarry souhaiterait que les créations soient désormais jugées et primées par catégories, ce qui motiverait peut-être davantage les candidats, tous styles confondus. Quoi qu'il en soit, une fenêtre s'est entrouverte sur un horizon plein de promesses, comme une main tendue à la jeunesse, un lieu de parole et d'expression pour elle, un marchepied pour porter plus haut encore sa voix et son chant. Et une fantastique occasion de sortir des sentiers battus pour emprunter ceux de la création.

Les enfants de Sutagar

La première surprise des organisateurs vient de l'importante participation au concours : 23 maquettes leur sont adressées par des groupes issus de l'ensemble du Pays Basque (à l'exception de la province d'Araba). "Nous sommes très satisfaits d'avoir obtenu autant de réponses", se réjouit Agus Hernan. "10 maquettes viennent du Pays Basque nord : c'est un résultat très encourageant quand on connaît la situation de la langue basque ici, et l'absence d'aide à la création de la part des institutions." Autre motif d'étonnement, cette fois quant au contenu : la plupart des maquettes présentées se retrouvent sur un même registre musical "hard rock". Influence évidente de groupes comme Sutagar, qui ont marqué la musique basque ces dernières années. "Il semble bien qu'il y ait une certaine tendance à l'uniformisation", regrette Anje Duhalde, président du jury, "mais cela ne signifie pas qu'en Pays Basque, aujourd'hui, on ne pratique que ce type de musique." Thierry Biscarry, musicien, porte un regard lucide sur la situation de la création musicale en Pays Basque : "Ce qui se passe avec l'influence du hard rock est logique : nous avons tendance à tomber dans la facilité, parce que nous ne sommes pas des professionnels, et que nous n'avons pas de contacts avec des professionnels qui pourraient nous faire progresser. Il est beaucoup plus facile de jouer à fond que d'essayer de s'ouvrir l'esprit en écoutant toutes sortes de musiques. Nous manquons de culture à ce niveau-là"

GAZTE LEIHO

Maketa lehiaketa
Tremplin
de la jeune création
basque

Lehiaketaren irabazlea
Groupe gagnant
GEROH
(Gipuzkoa)

Bigarren taldea
Second
TXITXAB
(Lapurdi-Baxenafarra)

Hirugarren taldea
Troisième
SEGABATHOR
(Gipuzkoa)

Beste talde hauek hautatuak izan dira/ Autres groupes sélectionnés
AIXA - OTSOAK - SEI URTE - OZKE HARLAX - KOLPE K MUGATIK



Gazteak dira. Eta musikazale amorratuak. GAZTE LEIHO maketa lehiaketan parte hartzeko ahalegin handiak egin dituzte. Gaurko musika, sorkuntza eta euskal gizarteaz badute zer erranik. Entzun dezagun haien boza.

GEROH : talde irabazlea (Ormaiztegi - Gipuzkoa)

Sari horrek ikaragarriko aukera ematen digu Euskal Herrian zehar mugitzeko. Zailtasun handienetako bat da guretzat, etxetik ateratzeko gogoia eta ahalak izatea.

Ipar Euskal Herriko musikariekiko harremanak : Iparraldean egiten diren ekitaldi askotara etortzen gara, hemen lagunak ditugu, eta ongi ezagutzen dugu Iparraldea. Bizimodu ezberdinak izanik ere, gure ustez gazteria, edo euskal nortasuna bi aldeetan berdina da.

Sorkuntza :

Euskal Herrian indarra dugu, eta egiazko sorkuntza bada. Beti Euskaldunak hemen egon gara, eta beti izan dugu kultura bat, hautsi duguna eta berri duguna. Baina hor da, besterik ez.

TXITXAB - Bigarren taldea (Iparraldekoa)

Lan hastapen bat da, guretzat. Hiru kanturekin hasi gara, orain behar dugu gure lana landu eta beste kantu batzu asmatu, bederen kantaldi bat prestatzeko. Jendearen gustukoa bada, zergatik ez egin diska bat.

Zailtasunak :

Iparraldean ez da leku anitz, eta dauden lekuak ez dira egokienak. Errepetizioak egiteko gela gutti dugu. Gune bat sortu behar genuke, 100 edo 200 pertsonentzako gune bat, ikusgarriak emateko eta errepetizioak egiteko. Horrelako toki bat beharrezkoa da eta indar bat eman behar genuke sektore hori lantzeko, zeren sorkuntzaren aldetik ez baita gauza handirik : ikusten da GAZTE LEIHO lehiaketan, emaitzak ez dira goi mailakoak.

Hard rock musikaren eragina :

Gaur egun gertatzen dena naturala da. 18 urteko gazte batentzat, biderik errazena hard-rockena izan da. Zoritxarrez, Euskaldunok kultur eskasean gara musika mailan eta eskema horietan gelditzen gara errazagoa baita. Kostatzen zaigu beste iturrietatik edatea, hau da, munduko beste musika mota guzietatik irekitzea.

Lehiaketa :

Hurrengo lehiaketak sail ezberdinak proposatu behar lituzke, sail bakoitza sarizatuz.

MUGATIK : lehen hamarretako talde bat (Gipuzkoarra)

Iruditzen zaigu horrelako lehiaketa oso inportantea dela, taldeak ezagutarazteko eta ateak irekitzeko. Gainera, Iparraldean antolatzea ondo dago. Senperoko kontzertua oso garrantzitsua izan da, bestela aukera gutxi dugu Iparraldera etortzeko.

Zailtasunak :

Publikoa ez da asko mugitzen, ez da gustora etortzen taldeak entzutera. Eta jendeak ez du hainbeste diska erosten ere. Guk musikariok publikoarekiko harremana sentitu behar dugu.

Hard rock musikaren eragina :

Egia da hemen badela Sutagar-en antza daukaten talde asko. Baina guk uste dugu gehiago ireki behar dela. Gure kasuan, talde kanpotarrak entzuten ditugu, mundu guziko taldeak. Horrekin ere irabazten da, euskal musikak horrela hartuko ditu indarrak.

Euskaraz idaztea :

Euskal Herrikan kanpo mugitzeko, euskaraz abesteak ateak itxi egiten dizkizu. Baina gure hizkuntza da eta horrekin jarraitu nahi dugu.

OZKE : Lehen hamarretako talde bat (Iparraldekoa)

Talde ttipi batendako oso inportantea da hautatua izatea horrelako lehiaketa batean. Sari horrek lagunduko gaitu, dudarik gabe.

Zailtasunak :

Hego Euskal Herrian leku gehiago dute, kontzertu gehiago antolatzen dute tabernetan. Hemen, kontzertuak herriko bestetan baizik ez dira egiten. Lekuak falta dira kontzertuak egiteko.

Sorkuntza :

Musika mailan sorkuntza bada. Iparraldean talde onak ditugu, horregatik zen inportantea lehiaketa hori antolatzea, bereziki Iparraldeko taldeendako.

Hego Euskal Herriko taldeekiko harremanak :

Ez dugu, batere. Hori zen gure asmoa ere : lehiaketa horren kari, kontzertu batzu han egitea, hango jendearekin harremanak ukaiteko. Uste dugu talde guzien helburua dela. Lehiaketa parada ona izan da.

Hard rock musikaren eragina :

Oraingo mugimendua hala da, utzi behar da pasatzen, eta gero lekua izan da berriro beste musika mota batzurendako. Guk, Euskal Herriko talde guziak entzuten ditugu. Baina musika egiteko beste eskualdeetatik etorri musikak entzun behar dira ere, ideia berriak ekartzeko Euskal Herrira.

Euskaraz idaztea :

Oso inportantea da euskaraz egitea, Iparraldean bereziki, euskara galtzen ari baita. Euskal musikak euskara ikasteko gogoia pizten ahal du euskara ez dakiten gazteengan. Gauza on bat izan daiteke.

Hauxe diote

Anje DUHALDE

Gazte Leiho lehiaketaren epaimahai-burua



Zein da lehiaketa horren emaitzarik nagusia, zure gustuko ?

Pundurik nagusienetarikoa bat taldeen kopurua da. 23 izan dira, ez baita gutti. Konparatzen badugu Euskadi Gazteak antolatzen duen lehiaketarekin, ez dugu non ahalgetzerik, kopuruan hemen talde gehiago aurkeztu baita. Mamia aipatzen badugu, pena pixka bat hartu dut zeren 23 taldeetatik 20 bat rock taldeak izan baitira, eta badirudi hemen horrelako uniformismo bati buruz ari garela. Behar bada, ez da errealitatearen miraila : hemen aurkeztu direnek hori proposatu dute, ez du erran nahi Euskal Herrian hori denik bakarrik egiten dena. Nik, musikari eta kantari, animoa eman nahi nieke bereziki ausartzen ez direnei, joko horretan sartzeko, beti aberasgarria baita, bai parte hartzen dutenentzat, eta bai entzuten dutenentzat. Lehiaketa hau tresna bat izan da : tresna hori balia dezatela eta estilo ezberdinak ager daitezela ahal den neurrian.

Zer behar genuke Euskal Herrian sorkuntza laguntzeko ?

Hemen dena lotua da, sozialki, politikoki, ekonomikoki eta kulturalki. Erraztasunak bagenitu, adibidez Euskal Kultur Erakundeak balu, momentu honetan, edozein kultur Ministeritzako ordezkariak duena edozein lurraldetan, pentsa ezazu zer egin litekeen ! Baina gaur egun, ez ditugu besteek dituzten oinarriko baldintzak behar den gisan lan

egiteko. Gero, beste gauza bat kontutan hartu behar da : behar bada euskal disketek ez dira aski ausartak, edo ez dute traturik egin nahi nazioarteko disketxeekin. Hor baliteke zerbait asmatzeko...

Euskal musikak lortuko balu Euskal Herriatik ateratzea, motibagarria liteke sortzaile gazteentzat ?

Ez du baitezpada horrek kreatibitatea laguntzen. Egia da Britainia eta Korzikako kantariak entzuten ditugula han eta hemen. Baina mugimendu hori disketxeek eskaintzen duten aterabidea da. Eta disketxe horiek eskaintzen dituzten baldintza horietan sartzeko ados zarenez ala ez, horrek egiten du dena. Joko horretan sartzeko indarra behar duzu. Gero, zertako behar liteke atsulutuki komertzial sarean sartu ? Zer onik ekar liezaioke horrek ? Korzikarren etsenplua hartzen badugu, nik uste dut I Muvrinikoak Parisen bizi direla Korzikan baino gehiago. Hautu bat egin behar denean, zer hautu egin behar da ? Ni gogoratzen naiz Errobirekin izan genituela proposamen batzu, eta ezetz erran genuela, zeren iduritzen baitzitzaigun gure errealitatea hemen bizi behar genuela eta ez Parisetik. Azken finean, nik uste hemen kreatzen ari den jendeak bere mundua egina duela, kulturalki eta arte mailan ere bai.

Ce qu'ils en pensent



Lucien QUESNEL

Délégué régional de la SACEM (*)

Quelles sont les raisons qui ont décidé la SACEM à devenir partenaire de l'opération GAZTE LEIHO ?

Plusieurs points nous ont paru intéressants dans cette opération. D'une part le fait qu'elle utilise le média radiophonique.

Cela ouvre un champ d'expression très important pour de jeunes musiciens qui vont pouvoir diffuser le résultat de leur travail à quelques milliers d'auditeurs. D'autre part, ce concours concerne les artistes d'expression basque, et nous sommes persuadés, à la SACEM, qu'il existe dans ce pays un fort potentiel de créateurs de talent. Reste à lui permettre d'éclorre, et en ce sens il est important qu'il existe des initiatives de ce type. Ce concours permet également aux lauréats de se familiariser avec toutes les techniques d'un métier très difficile : la scène, la radiodiffusion, et l'enregistrement. Enfin, ce concours ne se limite pas à un genre d'expression musicale, mais il permet l'expression de la jeune culture basque dans toute sa diversité.

Qu'est-ce qui manque aujourd'hui en Pays Basque pour que les créateurs puissent pleinement s'exprimer ?

D'abord il faudrait que les acteurs de la vie culturelle basque eux-mêmes expriment pleinement la volonté de se faire connaître à l'extérieur, et d'exporter leur art. J'ai constaté que les créateurs d'ici cherchaient

avant tout à s'exprimer sur leur territoire d'origine, sans rechercher particulièrement la diffusion ailleurs. Mais je crois que les mentalités évoluent. D'autre part, je pense qu'il manque les infrastructures nécessaires pour que les jeunes artistes puissent exercer leur discipline dans les meilleures conditions. Il est incontestable qu'il n'y a pas assez de salles destinées à les accueillir, il faudrait créer un véritable réseau de diffusion qui permettrait de mettre sur pied des tournées. On manque aussi de producteurs, d'éditeurs, d'agents susceptibles d'insuffler une dynamique de création, de diffusion, et d'organisation qui offrirait à ces jeunes talents des perspectives.

Comment percevez-vous l'influence des artistes du Pays Basque sud sur la production actuelle ?

Cette influence est incontestable, surtout dans le domaine des musiques amplifiées. C'est une sorte de modèle. Tout le monde se réfère à Sutagar ou Negu Gorriak comme des sortes de grands frères qui ont ouvert la voie. Mais à mon avis, on peut créer des courants d'expression qui soient propres au Pays Basque nord et qui expriment véritablement la sensibilité et les préoccupations des artistes d'ici. L'influence du sud doit être intégrée parmi d'autres influences, pour donner à l'arrivée un produit qui soit original et authentique.

* Société des Auteurs, Compositeurs et Editeurs de Musique
3 bis, avenue de la Marne - 64200 Biarritz
Tel : 05 59 24 70 99 - Fax : 05 59 24 16 72

- 3 - 21 h - **Baionako antzokia / Théâtre de Bayonne** : "Y'a de la joie et de l'amour" - (Théâtre national de Chaillot).
Xehetasunak / Renseignements : tél : 05 59 55 85 05.
- 4 - 21 h - **Maule/Mauléon (Salle "Ibar" gela)** : *Présentation du 1^{er} C.D. "Adiskideer" de Jean Bordaxar*.
- 5 - **Altzurükün / Aussurucq** : Barrikadak - Maskarada
- 7 → 8 - **Biarriz (Domaine de Françon)** : Séminaire : "Les journées d'Irissarry" - "La frontière pyrénéenne, lieu d'échanges et de passage". Xehetasunak eta izenen hartzea / Renseignements et inscriptions : Conseil général des P.A. - Services des affaires culturelles - B.P. 1615 - 64016 Pau Cedex - Tél : 05 59 93 83 83 00 - Fax : 05 59 98 08 44.
- 8 eta 9 - 21 h - **Biarriz (salle "Le Colisée" gela)** : Antzerkia/Théâtre : "Mots et usage de mots".
Xehetasunak/Renseignements : Amis du théâtre de la Côte basque. Tél : 05 59 24 90 27
- 10 - 21 h - **Atharratzeko kolegioan/ Collège de Tardets** : "Mustraka eta mintza".
- 11 - 21 h - **Izpura/Ispoure** : Kantaldia : "Emazteak kantuz" : Julie Lambert, Ezpela, Naia Robles.
- 12 - **Gotaine/Gotein** : Barrikadak - Maskarada
- 15 - 21 h - **Biarriz (Gare du Midi)** : Antzerkia/Théâtre : "Un tramway nommé désir".
Xehetasunak/Renseignements : Biarriz culture. Tél : 05 59 24 90 27
- 17 - 21 h - **Donapaleu/Saint-Palais (Zinegela/Salle de cinéma)** : Spectacle "Haurra xutik"
- 18 - 21 h - **Biarriz (Casino municipal)** : Dantza/Danse : "Rogella hightower" (Jeune ballet international).
Xehetasunak/Renseignements : Biarriz culture : 05 59 22 20 21
- 19 - 16 h - **Ortzaize/Ossès (Eliza/Eglise)** : Kantaldi : Ezpela, Patxi Saiz eta bere taldea. Antolatzailea : Ortzaizeko ikastola.
- 19 - **Garindaïne/Garindein** : Barrikadak - Maskarada
- 19 - 12 h - **Senpere/St-Pée-sur-Nivelle** : "Hatsaren poesia" (journée de la poésie). Antolatzailea/Organisateur : Hatsu elkarte.
- 20 → 25 - **Biarriz** : Kultur astea/Semaine culturelle "Bi harriz lau xori".
Xehetasunak/Renseignements : Biarriz culture. Tél : 05 59 22 20 21
- 21 - 21 h - **Maule/Mauléon ("Jai alai")** : Antzerkia/Théâtre : "Maintenant, c'est lui qui a peur de moi",
Théâtre des Chimères-ek aurkezturik.
- 26 - **Urdinabe/Ordiarp** : Barrikadak - Maskarada
- 26 - 16 h - **Bidarrai/Bidarray (Ezker paretaren gela/Salle du mur à gauche)** : Bertsu txapelketa : Nafarroako kanporaketa.
- 28 - 21 h (Baionako antzokia/Théâtre de Bayonne) : "Opéra de Bordeaux". Tél : 05 59 55 85 05

APIRILA / AVRIL

- 1 - 21 h - **Donibane Lohizuneko Jai alaietan/Jai alai de St-Jean-de-luz** : Kantaldia : Mikel Laboa, Kepa Junkera, Niko Etxart.
Antolatzailea/Organisée par : Hazparneko ikastola, Aozeko ikastola, Donibane-Lohizune - Ziburuko ikastolak, Ereintabil.
- 2 - **Donibane-Garazi/Saint-Jean-Pied-de-Port** : Euskal kantu xapelketako finala-erdia (Baxe-Nafarroa).
- 4 - 21 h - **Biarriz (Gare du Midi)** : Dantza/Danse : "Magadam magadam".
Xehetasunak/Renseignements : Biarriz culture. Tél : 05 59 22 20 21.
- 8 - 21 h - (Baionako antzokia/Théâtre de Bayonne) : "Les noces de Figaro". Tél : 05 59 55 85 05.
- 9 - **Atzai/Alçai** : Euskal kantu xapelketako finala-erdia (Xiberua).
- 9 - **Santa-Grazi/Saint-Engrâce** : Barrikadak - Maskarada
- 14 → 16 - **Gotaine/Gotein** : Festival "Xiru" festibala.
- 15 → 16 - **Biarriz (Casino municipal)** : "Salon du livre jeunesse" : Biarriz culture. Tél : 05 59 22 20 21
- 16 - **Altzai/Alçay** : Barrikadak - Maskarada
- 21 - 21 h - **Biarriz (Gare du Midi)** : Antzerkia/Théâtre : "Du vent dans les branches de Sassafras".
Xehetasunak/Renseignements : Amis du théâtre de la Côte-basque. Tél : 05 59 24 90 27.
- 22 - 21 h - (Baionako antzokia/Théâtre de Bayonne) : *Orchestre régional Bayonne-Côte basque*.
Xehetasunak/Renseignements : Tél : 05 59 55 85 05.
- 23 - **Barkoxe/Barcus** : Barrikadak - Maskarada
- 24 - **Baiona/Bayonne** : Euskal kantu xapelketako finala-erdia (Lapurdi).
- 24 - **Sara/Sare** : Idazleen biltzarra/Biltzar des écrivains du Pays Basque. Egun osoan/Toute la journée.
Xehetasunak/Renseignements : Syndicat d'Initiative de Sare. Tél : 05 59 54 20 14.
- 25 → 30 - **Biarriz** : Fêtes musicales - 10^{ème} édition.
- 29 - **Biarriz (Casino municipal)** : Musika/Musique : "Carte blanche à Michel Portal".
- 30 - **Baigorri**. Egun guzian/Toute la journée : Nafarroaren eguna. Antolatzailea/Organisateur : Association Basaizea.
- 30 - **Atharratzeko/Tardets** : Barrikadak - Maskarada
- 30 - 17 h - **Biarriz (Gare du Midi)** : *Orchestre national de Lille* : Biarriz culture. Tél : 05 59 22 20 21.

Erakusketak/Expositions

- Otsailaren 25ean, Hazparneko Eihartzea kultur etxean : "Txilin" erakusketaren estreinatzea,
Thierry Truffaut-ek egina Eihartzearentzat.
Le 25 février au centre culturel Eihartzea de Hasparren : Inauguration de l'exposition "Txilin" conçue par Thierry Truffaut pour Eihartzea.
- Martxoaren 3tik apirilaren 7a arte / Du 3 mars au 7 avril : "Marrazkiri". Izura/Ostabat. Sartze urrikik/Entrée libre.
Xehetasunak/Renseignements : Haize Berri. Tél : 05 59 37 85 79
- 2000ko apirilaren 2a arte / jusqu'au 2 avril 2000 : "Château sur fond paysage".
Château de Pau - 64000 Pau - Renseignements : 05 59 82 38 00

EZ AHANTZ

Apirilaren 8an : Euskal kultur erakundearen biltzar nagusia Hendaian.
Le 8 avril à 10 h : Assemblée générale de l'I.C.B. à HENDAYE, salle des Congrès.

QUESTION A...

Kattalin TOTORIKA MINTZO

A l'initiative de l'Institut Culturel Basque, vous animez depuis le début de l'année scolaire des ateliers de lecture en basque dans les écoles de St-Jean-de-Luz. Comment se déroulent ces ateliers ?

La disparition des magazines pour enfants Xirixta et Kometta, en 1998, a laissé un grand vide dans le domaine de la littérature pour enfants en Pays Basque nord. Ces ateliers de lecture en langue basque, expérimentés cette année dans les classes de CM1/CM2 de trois écoles de Saint-Jean-de-Luz (ikastola, école publique Urdazuri, et école St-Joseph), permettent de relayer le travail entamé avec l'édition des magazines, en encourageant le goût de la lecture chez les jeunes enfants.

Il s'agit donc pour moi d'offrir aux enfants un moment de plaisir à travers la lecture et la décou-



verte de textes choisis. La participation des enfants est bien évidemment essentielle, et je la sollicite sur le mode du jeu. Ainsi la lecture n'est plus vécue par eux comme une contrainte liée à l'univers scolaire, mais comme un terrain d'aventures à explorer, un espace de liberté insoupçonné.

C'est aussi l'occasion de leur faire découvrir des auteurs, des genres littéraires (conte, récit, poésie, théâtre...), et des supports de lecture différents. L'expérience n'a que quatre mois d'existence, mais elle vient confirmer, à mes yeux, l'importance de ce type d'interventions auprès d'enfants qui disent "aimer les livres, mais ne pas aimer lire". Parallèlement au travail des enseignants, et relayés par eux, il nous faut, avec un peu d'imagination, créer les conditions de la redécouverte du bonheur de lire.

ARGIBIDEAK INFOS PRATIQUES

HELDUEN KANTU XAPELKETA CONCOURS DE CHANT POUR ADULTES

Helduen kantu xapelketa parte hartu nahi baldin baduzu, deit lehen bai lehen :

Baxe-Nafarroarentzat :

Haize Berri kultur etxea - 64120 Izura / Ostabat.
Tél : 05 59 37 85 79,

Xiberuarentzat :

Uhaitza kultur etxea - 64130 Mendikota / Menditte
Tél : 05 59 28 44 46

Lapurdirentzat :

Eihartzea kultur etxea - 64240 Hazparne / Hasparren
Tél : 05 59 29 43 36

Finala nagusia : GERNIKA-n iraganen da, 2000ko ekainaren 17an.

TXALAPARTA IKASTALDIA

Herri soinulariak elkarteak txalaparta ikastaldiak antolatzen ditu (lehen urratsak eta hobekuntza), bi astetarik behin, Jesus Artzerekin, Uztaritzeko Bilgune gelan. Oren bateko kurtsoak, lau laguneko taldeetan.

Izen emateak : otsailaren 20a aitzin.

Xehetasunak : 05 59 29 26 29/05 59 54 02 51/05 58 43 42 07

STAGE DE TXALAPARTA

L'association Herri Soinulariak propose un stage de txalaparta (initiation et perfectionnement) avec Jesus Artze, une fois tous les 15 jours, à la salle Bilgune d'Ustaritz. Cours d'une heure par groupe de quatre.

Inscriptions avant le 20 février.

Renseignements : 05 59 29 26 29/05 59 54 02 51/05 58 43 42 07

LAN ESKAINTZA

Kontseilua erakundeak bi lanpostu sortzen ditu :

euskalgintzaren kohesioaren ildoan deritzonaren arduradun bat, euskararen ofizialtasunaren ildorako beste arduradun bat.

Xehetasun guzientzat deit :

Jone Dorronsoro / Kontseilua / Martin Ugalde kultur parkea
20140 ANDOAIN - Gipuzkoa
Tél : 00 34 943 59 12 00 - Fax : 00 34 943 59 30 51

LIBURU BERRIA - NOUVEAU LIVRE

"Subventions et associations"

(Dans la collection "Juris associations")
Guide juridique, fiscal et comptable.
260 libera/francs - 448 orrialde/pages

Manatzeko/Pour toute commande :

Editions Juris-service - 12, quai André-Lassagne - 69001 Lyon.
Tél : 01 72 10 10 101 - Fax : 04 78 28 93 86
E-mail : info@juris-associations.com

"Leihotik" N° 13

2000ko OTSAILA / FÉVRIER 2000

Euskal kultur erakundearen berripapera

Bulletin d'information bimestriel de l'Institut culturel basque

I.S.S.N. : 1276 - 4779

Directeur de la publication : Pantxoia Etchegoin

Rédaction et/ou Traduction : Maddalen Errotabehere

Jacques Larre, Frédéric Berrouet, Daniel Landart

Photos : Patrick Bizet, Jean-Claude Broca

Maquette et impression : Imp. André Larré - Bayonne

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA / INSTITUT CULTUREL BASQUE

Lota jauregia / Château Lota - 64480 UZTARITZE/USTARITZ

Tél. 05 59 93 25 25 - Fax 05 59 93 06 84

E-mail : eke@wanadoo.fr - http://www.eke.org

Euskal kultura sustengatzen duen herriarteko sindikata eta euskal kultur elkarteak partaidea. Estadua, Pirinio Atlantiarretako departamenduko Kontseilu orokorra, Akitania eskualdeko Kontseilua sustengatzaile. Avec le partenariat du Syndicat intercommunal pour le soutien à la culture basque et celui des associations culturelles basques. Subventionné par l'État, le conseil général des Pyrénées-Atlantiques, le conseil régional d'Aquitaine.